

SASKIBALOIKO KIROL-TEKNIKARIA

HASIERAKO ZIKLOA

Erdi mailako hasierako zikloaren egitura

3 bloketan egituratzen da

- ❖ Bloke komuna
- ❖ Bloke espezifikoa
- ❖ Praktikaldea

Kirol federakuntzan bertan edo kirol elkarteetan egiten da.

Ikasleak bloke espezifikoa gainditu duenean eta bloke komunean matrikulatuta dagoenen edo amaituta dagoenean hasi ahalko da.

Bloke komuna eta bloke espezifikoa osatzen duten prestakuntza-moduluen banaketa eta ordu-karga honako hauek dira:

HASIERAKO ZIKLOA	
Bloke komuna	Ordu-karga (orduak)
MED-C101: Kirol-portaeraren oinarriak	20
MED-C102: Lehen sorospenak	30
MED-C103: Jarduera fisiko egokitua eta desgaitasuna	5
MED-C104: Kirol antolakuntza	5
Guztira	60
Bloke espezifikoa	Ordu-karga (orduak)
MED-BCBC 102 Jokalariaren formakuntza hasierako etapetan	40
MED-BCBC 103 Hasierako etapetako taldeen zuzendaritza	20
MED-BCBC 104 Saskibaloia irakaskuntza	35
MED-BCBC 105 Hasierako etapetan erasoko eta defentsako taktika	20
MED-BCBC 106 Formakuntza praktikoa	150
Guztira	26
Hasierako zikloa guztira	325

Sartzeko baldintzak

Matrikula egiteko baldintza orokorrak honakoak dira:

- ❖ 16 urte beteta izatea
- ❖ Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua, ondorio akademikoetarako baliokidea den titulazioa edo ordezkio heldutasun-proba egiaztatzea.

Matrikula egiteko berariazko baldintzak honakoak dira:

- ❖ Berariazko proba bat gainditzea edo kirol-modalitate edo espezialitate bakoitzaren planean ezarritako kirol-merezimenduak egiaztatzea.

Eskola-saioen eskaintza eta antolaketa mota

Prestakuntza eskaintza ahalik eta ikasle gehienen eskura egon dadin, haien ezaugarriak edozein direla ere, eta aukera eman dezan ikasketak beste kirol, lan edo pertsona jarduera batzuekin bateratzeko, eskaintza erdi-presentziala izanen da, hau da, eskola saio presentzialak eta eskola saio ez-presentzialak konbinatuko dira.

BLOKE KOMUNA

60 ordu

- KIROL-PORTAERAREN OINARRIAK
- LEHEN SOROSPENAK
- JARDUERA FISIKO EGOKITUA ETA DESGAITASUNA
- KIROL ANTOLAKUNTZA

%100 online



BLOKE ESPEZIFIKOA



125 ordu

- KIROLARIAREN FORMAKUNTZA
- TALDEEN ZUZENDARITZA
- SASKIBALOIAREN IRAKASKUNTZA
- ERASO ETA DEFENTSA TAKTIKA

%50 online / % 50 aurrez aurrekoa

150 ordu

- PRAKTIKALDIA

Azken ebaluazioko proba egin ahal izateko, nahitaez bete beharko dira honako hauek:

- ❖ Programatutako aurrez aurreko eskola saioen %80ra joatea.
- ❖ Prestakuntza-modulu bakoitzari dagozkion ikaskuntza-prozesua ebaluatzeko jarduera programatu guztiak egitea.

Ikastaroaren egutegia:

Aurre izen emate epea: ekainak 23tik uztailak 10era

Prestakuntza-eskaintza honetan matrikulatzeko, ezinbestekoa da interesdunek sartzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela egiaztatzea.

Berariazko sarrera probak: data zehaztu gabe

Matrikulazio epea: uztailak 12tik 18ra

Ikastaroaren hasiera: irailak 6, astelehena

Bloke komuna: irailak 6tik urriak 10era (%100 On-line)

Bloke espezifikoa: urriak 11tik otsailak 4ra (%50 On-line)

Bloke espezifikoaren aurrez aurreko zatia (%50)

Ordutegi tipoa: asteazkena 17:30-21:30

Tokia: Kirol Etxea Miribilla (Bilbo) Martin Barua Picaza 27

KITEB instalakuntzak Kirol Teknikarien Eskola "Bizkaia" KIROL ETXEA (Bilbao)

Aurrez aurreko klaseen datak:

- ❖ 2021.eko urria: 20 eta 27
- ❖ 2021.eko azaroa: 3, 10, 17 eta 24
- ❖ 2021.eko abendua: 1, 8, 15, 22 eta 29
- ❖ 2022.eko urtarrila: 12, 19 eta 26
- ❖ 2022.eko otsaila: 2

Proposatutako egutegia behin-behinekoa da; izan ere, eskainitako prestakuntzan modalitatearen ezaugarriak direla eta, eta zerbitzuaren jasangarritasunaren mesedetan, prestakuntzaren hasiera, oro har, matrikulatutako gutxieneko ikasle kopuru batek baldintzatuko du, eta kopuru hori 20an ezarri da.

Plaza kopurua: 20tik 36ra

Deialdiak ikasturteka

Ikasleek bi deialdi izango dituzte matrikulazio bakoitzeko, eta gehienez lau, dagokion ziklo edo graduko prestakuntza-modulu bakoitza gainditzeko:

- ❖ Bi deialdietako lehena prestakuntza-bloke bakoitzeko eskola-aldia amaitzean izango da.
- ❖ Oro har, bigarren deialdia gutxienez hilabeteko epean eta gehienez hiru hilabeteko epean egin beharko da, lehenengo deialdia amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Salbuespen gisa erregimen bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren 13.5 artikulua 5. puntuan xedatzen den bezala, hezkuntza-administrazioek ezohiko deialdiak egin ahal izango dituzte edo, hala badagokio, matrikula bertan behera uzteko aukera ere izango dute, egoerak hala eskatzen duenean.

Matrikulazioaren prezioa

Ikasle bakoitzeko matrikulazio-prezioa 315 eurokoa da. Prezio horretan prestakuntza gainditzeko bi deialdi sartzen dira.

Baliozkotzeak, korrespondentziak eta salbuespenak eskatuz gero, organo eskudunak onartu beharreko hobari batzuk aurreikusten dira.